

PLE 02-JUL-26 (5/CP) TRANSFERENTZIAK GASTU-ALOR EZBERDINETAN DAUDEN APLIKAZIOEN ARTEAN

PLE 02-JUL-26 (5/CP)

«IKUSITA espedientean jasota dauden dokumentu guztiak eta bat etorriz 2026rako aurrekontuak betearazteko 4. oinarrian gastu-alor ezberdinetako aurrekontu-aplikazioen artean aurrekontua kreditua transferituz aldatzeari buruz xedatutakoarekin, ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-transferentzia bat onestea gastu-alor ezberdinetako aurrekontu-aplikazio batzuen artean, honen arabera:

Kreditua emanen duen aplikazioa:

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Kontzeptua	Zenbatekoa
40/32320/221020	IKASTETXE PUBLIKOAK. GAS- KONTSUMOA	Kreditu soberakina	70.000,00

Kreditua hartuko duen aplikazioa:

Aurrekontu-aplikazioa	Deskribapena	Kontzeptua	Zenbatekoa
90/43200/632090	TURISMOA - INB. KONP. BESTE ERAIKIN ETA ERAIKUNTZA BATZUETAN	Seminario etxea energetikoki eta funtzionalki birgaitzea	70.000,00

2.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki hau Iruñeko Udalaren iragarki-taulan jendaurrean paratzea hamabost egun naturaleko epean. Hasiera batean onetsitako aldaketa horietakoren baten kontra jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztuz gero, Osoko Bilkurak berariaz behin betiko onetsi beharko ditu horiek indarrean sar daitezen, baina behin betiko berariazko onespén hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten aldaketak indarrean sar daitezen»



8FBA06AE9980E0CDCBE488022A30CAC2HC